

UDAL BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO PROPOSIZIOA

KLASULA SOZIALEN EZARTZEA DELA-ETA

EH BILDU udal taldeak, Udalbatzaren Organo Araudiko 148. artikulua oinarri, Udalekotzearen inguruko Batzorde Ez-iraunkorra sortzeko proposizioa luzatu nahi dio Udalbatzari, datorren osoko bilkuran landu dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2013ko ekainaren 10ean onartu zirenetik, “Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun arloko irizpideak sartzeko jarraibideak” , horien inguruan inizatiba ugari eta desberdinak eman dira; haiek betetzeak hiritarrei eman beharreko zerbitzuan kalitate hobekuntza esan nahi duelako, baita Udalaren eremuan lan egiten duten pertsonentzat ere, nahiz eta ez izan udal-langile.

Jarraibide horien inplementazioak kontrola ziurtatzeko eta ebaluazioa errazteko instrumentuak behar ditu, honela zehaztasunez eta eraginkortasunez balio izango dute bete behar zituzten helburuak betetzeko. Baina, betetzea ziurtatuko duten mekanismoez gain, arazoizkoa eta beharrezkoa da jarraibide horien inplementazioa hobetzea, konplexua eta neketsua delako, bai espazioan, bai departamentuetan, baita maila funtzionalean ere. Beraz, aipatutako jarraibideen inplementazioa hobetzeko, beharrezkoa ikusten dugu batzorde ez iraunkor bat sortzea, mekanismoak eta egitura funtzionala definitzeko, udal kontratazioan baldintza sozialak modu iraunkorrean aplikatzea ahalbidetuko duena.

Esandakoagatik, EH Bildu udal taldeak honako **PROPOSIZIOA** aurkezten du datorren Udalbatzan landu dadin:

Batzorde ez iraunkor bat sortzea udal kontratazioan baldintza sozialak modu iraunkorrean aplikatzea ahalbidetzeko mekanismoak eta egitura funtzionala definituko dituen.

a.- Gaia: Udal klausula sozialak aplikatzearen gaineko honako azterketa eta ikerketa hau garatuko du:

1. Klausula sozial ereduak aztertu eta proposatu, onartutako jarraibideak hobetze aldera.
2. Antolaketa eta ondoriozko tramitazio fluxua aztertu eta proposamena egin, udal kontratazioan klausula sozialak modu iraunkorrean inplementatzea bermatzeko.

3. Kontratueta baldintza horiek aplikatzeko bermeak aztertu eta proposatu, eta betetzen ez diren kasuetan, izaera eta ondorioekin bat datozen penalizazio proposamenak egin.

b.- Iraupena: urtebete gutxienez.

c. Osaketa: alderdi politiko bakoitzetik kide bat, bozka ponderaturako eskubidea duena, eta gai honetan eskumena duten udal teknikarien laguntza.

d.- Bilkuretarako araudia: Hilean behin, gutxienez.

Donostian, 2016ko maiatzaren 6an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea